

*nazioa gara*  
**Geurea Ikurriña!**  
INPOSAKETARIK EZ!

Tolosaldeako 26 herrietako udal ordezkariak bildu gara: **ADUNA, ALBIZTUR, ALEGIA, ALKIZA, ALTZO, AMEZKETA, ANOETA, ASTEASU, BELAUNTZA, BERASTEGI, BERROBI, BIDEGOIAN, ELDUAIN, GAZTELU, HERNIALDE, IBARRA, IKAZTEGIETA, IRURA, LARRAUL, LEABURU, LIZARTZA, OREXA, ORENDAIN, VILLABONA, ZIZURKIL eta TOLOSA.**

Udal ordezkari gisa izendatu gintuztenetik, gure funtzioari lotu gatzaizkio ahal bezain zuzen. Udal ordezkariak gara, gure herritarrek aukeratuak eta beraiei zor diegu gure funtzioa. Udalak, herriaren nahi eta beharrak artikulatu eta gauzatzeko helburua duten instituzio gisa ulertzen ditugu.

Oztopo handi bat aurkitu dugu bidean, gure nahi eta borondatearen aurka doana, eta gure uste apalean guk ordezkatzeko ditugun herritarren nahi eta borondatearen aurka ere badoana. Espainiar Agintariek indarrez behartu nahi gaituzte gure udaletan Espainiar bandera zintzilikatzera.

Indarrez diogu, gureak ez diren legeen bidez, egin nahi ez dugun zerbait egitera behartu nahi gaituztelako. Ziur gaude euskal instituzioetan espainiar bandera zintzilikatzeko aginduaren atzean, Euskal Herria mendean hartzeko, eta hala irudikatzeko, estrategia oso bat dagoela eta hori jakinarazi nahi diegu ordezkatzeko ditugun herritarrei.

Otsailaren 14ean Tolosaldeako eragile sozial, politiko eta sindikalek plazaraturiko hausnarketarekin bat egiten dugu. Gure ustez, esku artean duguna ez da arazo instituzional bat, ez da udalean topatu dugun arazo tekniko bat; herri gisa dugun arazo bat baizik. Espainiar bandera inposatzen digute gure udaletan, gurea balitz bezala agertu dezagun eta hori ez dute inoiz lortuko. Geurea Ikurriña! Inposaketarik ez!

Euskaldunak gara, ez gara espainiarrak ez eta frantsesak eta guk ordezkatzeko ditugun herritarrei dei egiten diegu hala adierazi dezaten. Martxoaren 9rako Tolosan antolaturiko manifestazioarekin bat egiten dugu eta herritarrei dei egiten diegu bertan parte hartu dezaten.

Tolosaldeako udaletako Alkate eta zinegotziok, Euskal Herriaren aitortza eta burujabetza lortzeko lan egin, eta euskal herritarron nortasun eta identitate zeinuak sustatzeko konpromisoa hartzen dugu. Nazio gisa agertzen gaituzten ikurrak babestu eta zabaltzeko neurri zehatzak abian jarriko ditugu.

Tolosaldeako eragile sozial, politiko eta sindikalek gure udaletan aurkezturiko mozioak babestuko ditugu eta martxoaren 9an Tolosan eguerdiko 12etan burutzekoa den manifestazioan parte hartuko dugu.

Asteasun, 2013ko martxoaren 4ean.